

PROBA ESPEZIFIKOA

2019ko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2019ko MAIATZA

MAYO 2019

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Probak bi atal ditu:

1. atala: bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

2. atala: bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

1. ATALA:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi estiloa eta noizkoa den gutxi gorabehera.
- Egin obraren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Aztertu, labur, zer testuinguru historiko eta artistikotan egin zen.

A)





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2019ko MAIATZA

MAYO 2019

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

B)



2. ATALA:

GARATU BI GAI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- A. Arte prerromanikoa Iberiar penintsulan.
- B. Erromantizismoa: Gericault.



EBAZPENA ARTEAREN HISTORIA (2019ko maiatza)

• KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

• EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea (batez ere, testu-iruzkinean), lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Artelanak beren testuinguruan analizatu eta interpretatzen ditu, eta zuzen erabiltzen du diziplinaren lexiko espezifikoa.
- Arte-hizkuntza zorrotz interpretatzen du (formak, gaiak eta esanahiak).
- Zenbait tokitako obra adierazgarriak alderatzen ditu, eta haien arteko aldeei, antzekotasunei eta harremanei antzematen die.
- Gaien tratamenduan gertatzen den aldaketa deskribatzen du, bai eta arteari elkartutako erabilera eta funtzio berrien eragina ere.
- Modu egokian garatzen du artearen historiari buruzko gai teoriko bat.

1. ATALA:

A)

Leireko kripta ez da ohikoa. Ez da lurpekoa izatera iristen, eta noizbait ehorzlekua izan zelako ebidentziarik ere ez dago. Neurriak eta altuera nabarmenak ditu, eta haren beste ezaugarri bat kapitela handiak izatea da, koloma txikiak gainean ezarriak.

Eliza altxatu behar zuten tokiko lurra berdintzeko eta elizaren zimendu gisa erabiltzeko eraiki zen. Karratua da, eta tenpluaren burualdearen formari jarraitzen dio; horregatik, hiru absida zirkular eta lau nabe berdinean ditu, kanoi-gangaz estaliak. Haietako bat gainerakoak baino berriagoa da, toki horretan baitzegoen eliza eta kripta lotzen zituen eskailera. Kareharri kuartzodun eta burdinadunera eraiki zen; horregatik, erresistentzia ona du, eta kontserbazio-egoera onean dago.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2019ko MAIATZA

MAYO 2019

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Kripta hiru nabe izateko diseinatu zen. Hala ere, erdiko nabea, azkenik, erdibitu egin zuen erdialdeko arkutaria axialak; hala sortu ziren gaur egun ageri diren lau nabeak. Aldaketa horrek eragina izan zuen erdialdeko absidearen diseinuan.

Kapitel handiek eusten diote tenpluaren burualdearen pisuari. Desberdinak dira guztiak, hala tamainan nola apaingarrietan. Batzuek zimazio handiak dituzte, eta ukondo hirukoitzeko pilare-baso bat eratuz doaz, oso parpainarri goratuekin, estalki gangatuen sendogarri. Apaingarriak oso xumeak dira; animalietan eta irudi geometrikoetan oinarrituta daude. Kripta, elizarekin batera, 1057an sagaratu zuten.

Kriptara sartzeko atea monasterioko zaharrena da; erromaniko jaioberriaren estilokoa da, oso soila eta basa. Hiru arku erdizirkular gainjarri eta mailakatuk eratzen dute atea. Arkuak zuzenean bermatuta daude inpostetan, eta arkiboltei egindako alaka da inposten apaindura bakarra.

Kripta ondoan, San Virilaren tunela dago; kriptaren mendebaldeko horman zabaltzen diren hiru leiho txiki esturen bidez komunikatzen da kriptarekin. Tunel hori monasteriotik inguruko soroetara irteteko bidea zen. Gaur egun, itsututa dago, eta haren hondoa San Virilaren XVII. mendeko irudi bat dago. Santu hori monasterioko abadea izan zen X. mendean, eta Done Jakue bidean zabaldua dagoen kondaira baten protagonista da: kondairak dio Jainkoak betikotasunaren misterioa ulertarazi ziola Virilari.

B)

Pablo R. Picasso (Espainia)

1937

Kubismoa

Oihal gaineko olio-pintura

Gernika margolan sinboliko bat da. 3,5 metro altu eta 7,8 metro zabal da. Hartan, irudiak triangelutan antolatuta daude, non erpina lanpara baita eta oinarria, berriz, gizon hilaren gorpua.

Zuriz eta beltzaren eta grisaren zenbait tonuz margotuta dago, *grisalla* izeneko teknika erabiliz.

Agertoki arkitektonikoan, leiho batzuk, teilatu bat, baldosa-zorua eta mahai bat ageri dira ozta-ozta, eta bederatzi irudi daude gainean: sei pertsona eta hiru animalia. Itxura kaotikoa bada ere, irudi guztiak modu ordenatuan egituratuta



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2019ko MAIATZA

MAYO 2019

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

daude, piramide handi batetik abiatuta, zeina muturretan ezarritako bi ardatz bertikalek konpentsatzen baitute.

Triangeluaren goiko erpina leihotik sartzen den emakumeak eutsitako kinkearen gainean dago, eta diagonalean jaisten da oihalaren beheko muturretarantz. Piramideak inguratzen duen gainazalaren barnean, erdian, zaldi bat dago, saihets batean lantza bat iltzatua duela; zaldiaren ezkerrean, emakume bat iheska doa erdi biluzik, eta, animaliairen hanken azpian, soldadu bat datza laurdenkaturik.

Ezkerraldean, behetik gora, amatasun tragiko bat eta zezen bat ordenatu zituen Picassok. Animaliairen ondoan, ilunantzean, txori bat dago, sabaiaren eta mahaiaren artean harrapatuta. Eskuinaldean, sutean harrapatuta, besoak gora dituen emakume baten irudi agonikoak betetzen du espazioa.

Kubismoaren eta espresionismoaren artean kokatuta, bi estilook ematen dizkioten baliabide espresiboak eraginkortasun handiz baliatzen ditu autoreak.

Batetik, zaldiaren irudian eta zezenarenean ageri den espazio errealaren aniztasun zatikatua, eta are pertsonen desfigurazioa, baliagarriak dira bonben sentrazio kaotiko eta suntsitzailea emateko. Bestetik, neurrigabe zabaldutako aho lazgarriek —haien barnetik, batzuetan, mingain zorrotz bat jalgitzen da— espresio-zenit bat sortzea lortzen dute.

Margolanean, argiaren irudikapena erabat artifiziala da, ustezko fokuek — leihoak, kinkea eta sabaiko lanpara— ez baitute sortzen argiztapen arrazional bat; aitzitik, ikuspegi kubisten aniztasunaren geometrizazioak erabakitzen du argiztapena.

Koloreari dagokionez, eskala kromatiko urri bat erabiltzen du Picassok, zuriak, beltzak eta grisak osatua. Egunkarietako argazkiek eragindako inpaktuari egotzi zaio gama hori hautatu izana.

1937ko apirilaren 26an, Espainiako Gerra Zibilean, Alemaniako Kondor legioaren hegazkinek Gernika bonbardatu zuten. Gertaera hark hunkituta, maiatzaren lehenean ekin zion margolanari Picassok, populazioaren gaineko eraso munduaren aurrean salatzeako asmotan.

Vicens Vives argitaletxea



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2019ko MAIATZA

MAYO 2019

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

2. ATALA

A. Arte prerromanikoa Iberiar penintsulan.

Europako mendebaldeko Erdi Aroko artearen lehen aldi handiaren izendapen historiografikoa da arte prerromanikoa. Goi Erdi Aroan gertatu zen (VI. mendetik X. mendera —edo V.aren amaieratik XI.aren hasierara—).

Estilistikoki, ez du izendatzen arte-forma ondo definituak dituen mugimendu estetiko bat; aitzitik, gehiago da adierazpen generiko bat, barne hartzen duena latindar kristandadeak arte paleokristauaren eta arte erromanikoaren artean ekoiztiko artea.

Ekialdean, Erromatar Inperioaren iraupenari esker, bizantziar artea garatu zen. Mendebaldean, berriz, Mendebaldeko Erromatar Inperioaren erorialdiak eta inbasioen garaiek ezegonkortasun politiko handiko eta beheraldi kulturalerako aldi bat zabaldu zuten («aldi iluna» izenekoa, idatzizko iturrien eskasiak eta jarraitutasunik ezak ezaugarritua), non herri germanikoen beren artea eta kultura batu baitzituzten instituzio berriek (batez ere, monakotza) hautatu eta kristautasunarekin uztartutako kultura klasiko greko-erromatarren iraupen partzialarekin. Bestalde, VII. eta VIII. mendeen geroztik, eremu mediterraneoan erdibituta utzi zuen arabiarren hedapenak; hegoaldeko itsasertzean finkatu ziren arabiarren, Iberiar penintsulatik Siriaraino, eta islamiar artea garatu zen eremu horretan.

Prerromanikoan badira ezaugarri komun batzuk, hala nola programa arkitektoniko handirik ez izatea (lehenagoko eraikinak eta haien arkitektura-elementuak berrerabiltzera iristeraino), eskultura handien urritasuna, urregintzari eta eskuizkribuak ilustratzeari lehentasuna ematea; eta, arte figuratiboetan, sinpletasun, eskematizazio eta sinbolismoranzko eboluzio formala, adierazkortasun handiagoa lortzearen, errealismoari uko eginda, eta apaindura-motiboen ugaritasuna (elkar-gurutzatzeak, soka-erakoak, izar-erakoak, etab.), “horror vacui”-rainsen dena. Dena dela, ez dago tokian tokiko arteen arteko identifikazio nahikorik «nazioarteko estilo» bat dela baieztatzeko, ez behintzat Behe Erdi Arokoak izan ziren bezala (erromanikoa eta gotikoa).

B. Erromantizismoa: Gericault

Erromantizismoa XIX. mendeko lehen erdian nagusitu zen mugimendu artistikoa da. Arte plastikoetara bakarrik ez, literaturara eta musikara ere iritsi zen estilo hori.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2019ko MAIATZA

MAYO 2019

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Hölderlin-ek honela laburbildu zuen espiritu berria: “Gizakia jainko bat da amets egiten duenean; eskale bat, berriz, gogoeta egiten duenean”. Sentikortasun berri horren arabera, lausotu egiten dira ingeradak, nahasi koloreak, eta erauzi egiten da pertsonaia agertoki pikturikoetatik. Gaia, existitzen denean, behaketa hutsera murriztuta gelditzen da. Margolanaren irakurketa amets-irudiak ordeztzen du, eta gogoetazkoaren eta objektibotasunaren tokia subjektibotasunak eta irudipenezkoak beretzen dute. Arrazioitasuna desagertu egiten da mundu sentikorraren oldarraren ondorioz.

Erromantizismoa bat-batean sartu zen artearen historian, eta hark garatutako ikusmolde batzuek bizirik diraute gaur egun. Artelana sorkuntza-prozesu paregabe baten emaitza da; bizi-esperientzia bakar eta errepikaezina. Artista izaki jeniala delako irudia sortzen da, eta artelana, hala, gainerako gizakiei ukatzen zaien ustekabeko inspirazio baten emaitza da. Horren arabera, bezero erromantikoak aintzakoagotzat hartzen du bozetoa edo prestaketa-marraskia obra burutua baino. Izan ere, bozetoan iheskortasuna, sormen hutsa, nagusitzen da, behin betiko obran azkenean gailentzen den gogoetaren iragazkia gabe.

Pintura akademizistaren eta eboluzio historikoaren beraren erreakzio gisa sortzen da: antzinako erregimenaren erorialdiaren eta XIX. mendeko iraultza burgesen ondorio gisa. Pintura erromantikoak ardura handiagoa hartzen du iradokitzen eta ebokatzen edukiak edo irakurtzeko narrazioak aurkezten baino. Autorearen subjektibismoa gainerakoari gailentzen zaio; ikuspen eta planteamendu desberdinak sortzen ditu.

Espresioak identifikatzen du artelan erromantikoa, artistaren indibidualtasunak, arauen kontrakoa izateak eta, batez ere, intentsitate emozionalak. Horregatik esan izan da erromantizismoa ez dela estilo bat, sentimendu bat baizik.

Exotikotasuna, askatasuna, herrialdeen kultura-tradizioak gustuko izatea, artistaren jeinua aldezteak; oraina eta geroa iraganean oinarritzea, konpromiso politikoa nazionalismoarekin eta independentismoarekin lotzea; horiek guztiak artista erromantiko askoren ezaugarri komunak dira. Bi kontzeptu jalgitzen dira orain: “gorentasuna” (neurritasunaz haraindi doana, hala nola natura); handitasunak eta neurrigabetasunak, artegatasuna eta larritasuna sortzen baitute, garrantzia eta indarra hartzen dute artearen munduan; eta izaera pintoreskoa, non artista, edertasunaren bila, ez baita gai jasoetan bakarrik abiatzen (erlijioa, mitologia, heroikotasuna) baizik eta baita ohikoan eta egunerokoan, gertukoan, nahiz eta horrek berekin dakarren gogorra eta latza dena ere irudikatzea. Natura, erromantikoentzat, ez da beren obretarako gaia bakarrik, bada sentimendu-iturri ere. Naturaren eta ikuslearen arteko sentimendu horien interpretea da artista.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2019ko MAIATZA

MAYO 2019

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Pintura erromantikoaren ezaugarriak:

- Arrazoimenaren inperio absolutua arbuiatzea.
- Misteriotsu eta grinatsu denaren goresmena, askatasunarena eta abertzaletasunarena.
- Erdi Aroaren errebindikazioa.
- Indibidualtasuna eta subjektibotasuna estimatzea.
- Kolorea eta argia nagusitzen zaizkie lerroari eta ingeradari. Koloreak autorearen nortasuna adierazten du.
- Konbentzionalismo neoklasikoak eta estilo-uniformetasuna alde batera uztea.
- Konposizio dinamikoak, urduriak, itxuraz kaotiko edo desordenatuak.
- Keinua dramatikoak nahiago izatea gelditasun eta baretasun klasizista baino.
- Gaiak ez dira gehiago heroiak, jainkoak eta irabazleak; haien ordean, gizaki anonimoak, herri-masak, bizirik irten direnak eta garaituak hautatzen dira.
- Paisaia erromantikoak natura bortitz eta dramatikoa irudikatu zuen, gizakiaren presentzia murrizten duen natura bat. Itxura nostalgikoa hartzen du, hondakin eta laino artean.
- Pesimismoa ageri da gaitan: eromena, heriotza; baita nazionalismoa, askatasuna eta orientalismoa ere.

Askotariko eskolak daude, eta bakoitzak herrialde baten tradizioari jarraitzen dio: Frantzia eta haren eboluzio politikoa, Géricault eta Delacroixekin; Alemania eta haren batasunaren aldeko borroka (Friedrich); Britainia Handia eta haren paisaiaren aldeko gustua (Constable); eta Espainia bere ohiko generoekin, hala nola kostunbrismoa eta historia.

Konpromiso historikoa: gerra- eta hondamendi-gaiak ageri dira.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2019ko MAIATZA

MAYO 2019

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Arte figuratiboak dira nagusi, sentimenduarekiko harkorrakoak baitira arkitektura baino, zeren eta arkitektura, tradizioz, iraganeko balioen eramailea baita.

Eskola eta autore erromantikoak

Frantzia

Frantzian, erromantizismoaren lehen urratsak Louis Daviden jarraitzaile batzuek egin zituzten: garrantzitsuena Antoine-Jean Gros izan zen, neoklasizismoaren eta erromantizismo betearen arteko zubia. Grosek heroi handi gisa zabaldu zuen Napoleonen figura eta irudia; hau da, gerlari gisa.

Dena dela, frantses autore erromantiko nagusiak Théodore Géricault eta Eugène Delacroix izan ziren.

Théodore Géricault (1791-1824): Michelangeloren eta Rubensen jarraitzailea izan zen. Forma urduri eta bihurriak irudikatzen zituen, gizaki arruntaren oinazeen erakusgarri. Haren bizitza labur eta intentsoa eta indarkeriazko heriotza sinbolo bat izan ziren beraren garaiko artistentzat. Géricaulten margolanetan emozioek dute lehentasuna, eta gizarteko pertsona txiro eta baztertuei jartzen die arreta. Haren obra nagusia “*Méduseren baltsa*” da. Obra horrek xede politiko garbia zuen, Gobernuari zuzendutako kritika nabarmena zen. Gaia benetako gertaera bat izan zen (*Méduse* itsasontzi frantses bat zen; hondoratu egin zen, eta hartan zihoazen pertsona batzuek bizirik irtetea lortu zuten baltsa batean), eta hartaz baliatu zen margolaria gordintasun betean erakusteko zer borroka daraman gizakiak herioaren eta naturaren indarren aurka. Autoreak islatu zuen unean, hondoratzetik bizirik irtendakoek, egun asko jitoan eta etsipenean eman ondoren, itsasontzi baten kea ikustatu dute: salbamenaren eta itxaropenaren sinboloa. Gorputz gihartsuetan nabari da Michelangeloren eragina. Obra hori, gainera, errealismoranzko lehenengo hurbiltze bat da, dokumentatzeko eta gertatutakoa zientifikoki deskribatzeko nahiagatik. Intentsitate emozionala eta dramatismoa dira obra horren ezaugarri nabarmenak. Horretarako, lagungarriak dira hala elementu formalak nola ikonografikoak. Eta formalen artean, hauek: kolorearen eta konposizioaren erabilera bortitza, hildakoak eta hil hurrenak erakusten baitizkigu lehen planoan, eta ilunabarreko argia, zeina tragediaz mintzo baitzaigu.

Iturria: <http://blogartemercedes.blogspot.com/2010/06/el-romanticismo-theodore-gericault.html>



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2019ko MAIATZA

MAYO 2019

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

GALDEREN ETA CURRÍCULUMAREN ARTEKO ERLAZIOA

GALDERAK	EDUKI MULTZOAK
1	2. multzoa
2	2. multzoa
3	2. multzoa
4	2. multzoa